

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

**Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 10/2017 FORU DEKRETUA, 2017ko otsailaren 21ekoa. Honen bidez, Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroentzako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta deialdia ezartzen dira; diru-laguntza horien xedea da Bizkaiko eskualdeetan enplegu-politikak eta tokiko garapena artikulatzea.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta bete garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratatu txarren biktimak diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetzaren zein garapenaren arloko politiken bidez.

Behargintzak udal zentroak dira, eta helburu hauetarako sortu dira: udalaren edo eskualdearen garapen integrala sustatzea, pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko ekintzak egitea, udaleko edo eskualdeko enpresa- eta merkataritza-sarea sustatzeko ekintzak egitea, enpleguari buruzko azterlanak eta informazio-jarduerak egitea, inoren konturako laneratzea sustatzea, autoenplegua bultzatzea, enpresen sorrera sustatzea, udalean edo eskualdean instalatutako enpresei zerbitzuak ematea eta tokiko garapena hobetzen duen beste edozein jardura egitea.

Enpleguaren tokiko kudeaketa eta tokiko garapena hurbil dauden tokiko egituren bidez egitea formula egokia da enplegua sustatu, sortu eta hobetzean emaitza onak lortzeko, eskualdeko aukera ekonomikoak aprobetxatzen baitira.

Dekretu honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroen arteko lankidetzaren indartzea tokiko garapenaren eta enpleguaren arloan, erakunde bien arteko ahalmenak aprobetxatzea, eta lurraldearen ahalmen endogenoa aprobetxatzen duten neurrien bidez enplegu-aukera berriak detektatzea.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu nahi du Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta berdintasunaren arloko foru-politika bultzatu. Horregatik, foru dekretu honetan jasotzen diren jardueren genero-ikuspegia jaso behar du bere garapenean, eta bat etorri behar du Sailak berdintasunaren arloan dituen ildo estrategikoei, alegia: zeharkakotasuna, ahalduntzea eta balioen aldaketa, kontziliazioa eta erantzukidetasuna, indarkeria matxista errotik erazteko konpromiso gisa.

Azaldutakoa dela bide, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

**Departamento de Empleo,
Inclusión Social e Igualdad**

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 10/2017 de 21 de febrero de 2017, por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones dirigidas a los centros de empleo y desarrollo local Behargintzak para la articulación territorial de las políticas de empleo y desarrollo local en las comarcas de Bizkaia.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrandose el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

Los Behargintza son centros municipales creados para: promocionar el desarrollo integral del municipio o comarca; realizar acciones dirigidas a mejorar la empleabilidad de las personas; realizar acciones dirigidas a fomentar el tejido empresarial y comercial del municipio o comarca; desarrollar actividades de prospección e información para el empleo; apoyar la inserción laboral por cuenta ajena; apoyar el autoempleo; apoyar la creación de empresas; dar servicios a las empresas instaladas en el municipio o comarca y, realizar cualquier otra actividad que favorezca el desarrollo local.

La gestión local del empleo y el desarrollo local, a través de estructuras locales de proximidad, es una fórmula idónea para lograr buenos resultados en la promoción, creación y mejora del empleo, aprovechando las potencialidades económicas de la comarca.

El presente Decreto tiene como objetivo reforzar la colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y los centros de empleo y desarrollo local Behargintza en el ámbito del desarrollo local y el empleo, aprovechar las potencialidades de ambas instituciones, así como detectar nuevas posibilidades de empleo a través de medidas que aprovechen el potencial endógeno del territorio.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como objetivo la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Bizkaia así como el impulso de la política foral de igualdad. Por ello las actuaciones contempladas en el marco del presente Decreto deberán incorporar la perspectiva de género en sus desarrollos y coincidir con las líneas estratégicas del Departamento en materia de Igualdad: Transversalidad, Empoderamiento y cambio de valores, Conciliación y Corresponsabilidad como compromiso en la erradicación de la violencia machista.

Por todo lo expuesto, a propuesta del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 21 de febrero de 2017.

XEDATU DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra

Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroentzako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta deialdia onesten dira.

I. TITULUA

BEHARGINTZAK ENPLEGU ETA TOKIKO GARAPENERAKO ZENTROENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK**1. artikulua.—Xedea**

Dekretu honen xedea da Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroentzako diru-laguntzak arautzea; diru-laguntza horien bidez, Bizkaiko eskualdeetan enplegu-politikak eta tokiko garapena artikulatu nahi dira.

2. artikulua.—Erakunde onuradunak

Bizkaiko Lurralde Historikoko udal edo eskualdeetako Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroak izan daitezke dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun.

Dekretu honen ondorioetarako, hauek izango dira Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroak:

1. «Bermeoko Udala-Behargintza»: Bermeo, Mundaka eta Sukarrieta.
2. «Erandioko Udala»: Erandio.
3. «Ermuko Udala»: Ermua eta Mallabia.
4. «Galdakaoko Udala»: Galdakao.
5. «Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenak Zentroa». Gernika Lumo, Arratzu, Ea, Busturia, Errigoiti, Muxika, Gautegiz-Arteaga, Mendata, Morga, Ibarangelu, Forua, Murueta, Nabarniz, Ajangiz, Elantxobe, Ereño eta Kortezubi.
6. «Getxoko Udala»: Getxo.
7. «Leioako Udala»: Leioa.
8. «Portugaleteko Udala»: Portugalete.
9. «Santurtziko Udala»: Santurtzi.
10. «Sestaoko Udala»: Sestao.
11. «Basauri-Etxebarri Behargintza, S.L.» Basauri-Etxebarri: Basauri eta Etxebarri.
12. «Behargintza Txorierrri, S.L.»: Loiu, Lezama, Larrabetzu, Sondika, Zamudio, Derio.
13. «Bilbao Ekintza, Enpresa Erakunde Publikoa»: Bilbo.
14. «Enkartur, Enkarterrietako Turismo Elkarte»: Gueñes, Galdames, Alonsotegi, Gordexola, Balmaseda, Sopuerta, Zalla.
15. «Inguralde, Barakaldoren Gizarte-Ekonomia Garapenerako Erakunde Autonomoa»: Barakaldo.
16. Lea Artibaiko Garapen Agentzia, S.A.: Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Markina-Xemein, Lekeitio, Ondarroa.
17. «Durangoko Merinaldearen Mankomunazgoko Behargintza»: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.
18. «Meatzaldeko Behargintza, S.L.» Meatzaldea: Muskiz, Abanto eta Zierbena, Zierbena, Ortuella eta Trapagaran.
19. «Mungialdeko Behargintza, S.L.»: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungia.
20. «Urduñaderra Urduña Edera, S.L.»: Urduña.
21. «Uribekostako Behargintza, S.L.»: Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz.

Onuradunak izateko, entitateak ez dira egon behar Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoe-retako batean ere.

Artículo único

Se aprueban las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones dirigidas a los centros de empleo y desarrollo local Behargintzak.

TÍTULO I

AYUDAS DIRIGIDAS A LOS CENTROS DE EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL BEHARGINTZAK**Artículo 1.—Objeto**

Es objeto del presente Decreto regular las ayudas dirigidas a los Centros de empleo y desarrollo local Behargintza para la articulación territorial de las políticas de empleo y desarrollo local en las comarcas de Bizkaia.

Artículo 2.—Entidades beneficiarias

Podrán ser beneficiarias de las ayudas establecidas en este Decreto los Centros de Empleo y Desarrollo local Behargintza, de carácter municipal o comarcal del Territorio Histórico de Bizkaia.

A los efectos del presente Decreto tendrán la consideración de Centros de Empleo y Desarrollo Local Behargintza las siguientes entidades:

1. «Bermeoko Udala-Behargintza»: Bermeo, Mundaka eta Sukarrieta.
2. «Erandioko Udala»: Erandio.
3. «Ermuko Udala»: Ermua eta Mallabia.
4. «Galdakaoko Udala»: Galdakao.
5. «Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenak Zentroa»: Gernika Lumo, Arratzu, Ea, Busturia, Errigoiti, Muxika, Gautegiz-Arteaga, Mendata, Morga, Ibarangelu, Forua, Murueta, Nabarniz, Ajangiz, Elantxobe, Ereño eta Kortezubi.
6. «Getxoko Udala»: Getxo.
7. «Leioako Udala»: Leioa.
8. «Portugaleteko Udala»: Portugalete.
9. «Santurtziko Udala»: Santurtzi.
10. «Sestaoko Udala»: Sestao.
11. «Basauri-Etxebarri Behargintza, S.L.» Basauri-Etxebarri: Basauri eta Etxebarri.
12. «Behargintza Txorierrri, S.L.»: Loiu, Lezama, Larrabetzu, Sondika, Zamudio, Derio.
13. «Bilbao Ekintza, Enpresa Erakunde Publikoa»: Bilbo.
14. «Enkartur, Enkarterrietako Turismo Elkarte»: Gueñes, Galdames, Alonsotegi, Gordexola, Balmaseda, Sopuerta, Zalla.
15. «Inguralde, Barakaldoren Gizarte-Ekonomia Garapenerako Erakunde Autonomoa»: Barakaldo.
16. Lea Artibaiko Garapen Agentzia, SA: Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Markina-Xemein, Lekeitio, Ondarroa.
17. «Durangoko Merinaldearen Mankomunazgoko Behargintza»: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.
18. «Meatzaldeko Behargintza, S.L.» Meatzaldea: Muskiz, Abanto eta Zierbena, Zierbena, Ortuella eta Trapagaran.
19. «Mungialdeko Behargintza, S.L.»: Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka y Mungia.
20. «Urduñaderra Urduña Edera, S.L.»: Urduña.
21. «Uribekostako Behargintza, S.L.»: Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz.

Para ser beneficiarias, las entidades no pueden verse afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la NFS.

3. artikulua.—Diru-laguntza jaso dezaketzen ekintzak

Behargintzek 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten dituzten tokiko edo eskualdeko jarduera-proiektuak lagundu daitezke diruz.

Behargintzen tokiko edo eskualdeko jarduera-proiektuak bat etorriko dira Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren jardun-lerroekin.

Tokiko enplegua hobetzeko tokiko edo eskualdeko jarduera-proiektuak lagunduko dira diruz, baldin eta jarduera hauetako bat egiteko badira:

- Pertsonen enplegagarritasuna hobetzea; arreta berezia jarriko da talde hauetan: emakumeak, gazteak, 45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabetuak eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenak.
- Enplegua sustatzea mendetasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioaren sektorean.
- Enplegu berdea sustatzea. Dekretu honen ondorioetarako, jarduera edo sektore ekonomiko hauetan sortutakoa izango da enplegu berdea: energia berriztagarriak, garraio, erakuntza eta birgaitze iraunkorra, bioerregaien sorrera, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa, turismo iraunkorra, hondakinen eta hondakin-uren kudeaketa eta tratamendua, eta baso-eremuen kudeaketa.
- Udaleko edo eskualdeko enpresa- eta merkataritza-sarea sustatzea, bai eta gizarte-ekonomiako enpresak ezartzeko jarduerak ere.
- Laneratze-enpresak sustatzea.
- Udalean edo eskualdean instalatutako enpresei laguntzea eta zerbitzuak eskaintzea, batez ere industria, merkataritza eta turismoaren arloetan.
- Gizarte eta laneko berrikuntzaren arloan proiektu estrategikoen barruko jarduerak egitea, batez ere gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat.

Enplegu eta toki garapenerako zentroek eskura dituzten baliabide guztiak jarri beharko dituzte proiektuetan gizonezko eta emakumezkoen arteko ordezkartza orekatua egon dadin.

4. artikulua.—Laguntzen zenbatekoa eta muga

Diru-laguntzak funts galdurako izango dira, eta zenbatekoak ezin izango du inoiz ere gainditu diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako ekintzen benetako kostua.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da proiektuan aurrez ikusitako gastu eta sarreraren aurrekontua, eta nor-gehiagoka sistema erabiliko da, 6. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak oinarri hartuta.

Erakunde eskatzaile bakoitzari aurkeztu dituen ekintza guztientatik gehienez 50.000 euroko diru-laguntza emango zaio.

5. artikulua.—Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Gastu hauek bakarrik jaso dezakete diru-laguntza: udaleko edo eskualdeko proiektuetan zuzenean diharduten Behargintza zentroetako langileen soldata, ordainsariak eta gizarte-segurantzaren gastuak.

Erakunde onuradunak egiten dituen barneko gastuak soldaten eta karga sozialen ordainketa egiaztatzen duten agiriaren bidez baino ezin dira justifikatu.

Dekretu honetan jasotako diru-laguntzen xede diren jardueretan debekatuta dago azpikontratazioa egitea.

Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke. Erakunde onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin edota sailak izendatzen duen edozein erakunderekin, eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.

Artículo 3.—Acciones subvencionables

Serán subvencionables proyectos de actuación local o comarcal a ejecutar por los centros Behargintza en el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2017.

Los proyectos de actuación local o comarcal de los centros Behargintza se desarrollarán en consonancia con las líneas de actuación del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Serán subvencionables los proyectos de actuación local o comarcal que incidan en la mejora del empleo local y se orienten y ejecuten de acuerdo a las siguientes actuaciones:

- Mejora de la empleabilidad de las personas, con especial atención a las mujeres, personas jóvenes, personas mayores de 45 años y personas desempleadas de larga duración o en riesgo de exclusión.
- Promoción del empleo en el sector de atención sociosanitaria a personas dependientes.
- Promoción del empleo verde. Se considera, a efectos del presente Decreto empleo verde aquel generado por las siguientes actividades o sectores económicos: las energías renovables; el transporte y la edificación y rehabilitación sostenible; la producción de biocarburantes; la agricultura y ganadería ecológica; el turismo sostenible; la gestión y tratamiento de residuos y aguas residuales; o la gestión de zonas forestales.
- Fomento del tejido empresarial y comercial del municipio o comarca así como actuaciones dirigidas a la implantación de empresas de economía social.
- Promoción de empresas de inserción.
- Apoyo y oferta de servicios a las empresas instaladas en el municipio o comarca especialmente en el área de industria, comercio y turismo.
- Desarrollo de actuaciones en el marco de proyectos estratégicos en el ámbito de la innovación sociolaboral, especialmente dirigidas a personas en situación de exclusión social.

Los centros de empleo y desarrollo local Behargintza deberán poner los medios a su alcance para que en el desarrollo de los proyectos exista una representación equilibrada de mujeres y hombres.

Artículo 4.—Cuantía y límite de la subvención

Las ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido, que no podrán superar en ningún caso el coste real de las acciones subvencionables presentadas.

La cuantía de la subvención se calculará a partir del presupuesto de gastos e ingresos previstos del proyecto, y tras la aplicación de la concurrencia competitiva en base a los criterios de valoración establecidos en el artículo 6.

La subvención máxima alcanzable por entidad solicitante y por el total de las acciones subvencionables presentadas ascenderá a 50.000 euros.

Artículo 5.—Gastos subvencionables

Tendrán la consideración de gastos subvencionables exclusivamente los sueldos y salarios y gastos de seguridad social de las personas que pertenecientes a los centros Behargintza que participen directamente en la ejecución de los proyectos de actuación local o comarcal.

Los gastos internos en que incurra la entidad beneficiaria se justificarán con los documentos acreditativos de pago de sueldos y cargas sociales exclusivamente.

Se prohíbe la subcontratación de las actuaciones objeto de subvención en el presente Decreto.

El análisis y evaluación de las acciones subvencionadas se podrá realizar en cualquier momento desde el inicio de la acción y con posterioridad a su finalización, debiendo colaborar la entidad beneficiaria con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad o con la entidad que éste último designe, aportándole los datos y documentación que se le solicite.

6. artikulua.—Diru-laguntzak emateko prozedura eta balorazio-irizpideak

Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak. Horretarako, honako prozedura hau hartuko da norgehiagoka araubidetzat: aurkezten diren eskabideak erkatu egiten dira, eta, artikuluko honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera, euren arteko lehenetsun-hurrenkera ezartzen da. Gero, dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarri den mugarekin betiere, hurrenkera horri jarraituz adjudikatuko dira laguntzak, irizpide horiek aplikatuta punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beherantz eginez.

Halere, kreditu baliagarriaren hainbanaketa ezarriko da diru-laguntzaren entitate onuradunen artean.

Aurkeztutako eskabideak baloratu eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Aurkeztutako proiektuaren definizio-maila, kalitatea, edukia eta aurkezpena, bai eta proiektuak entitate eskatzailearen helburu, lerro eta ekintzekin duen koherentzia ere. Gehienez, 2 puntu.

Irizpide hori baloratzeko, erakunde eskatzaileak txosten bat aurkeztu beharko du eta, bertan, gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:

- a) Proiektuaren memoria, alderdi hauek zehazten dituenak:
 - Lortu nahi diren helburuak.
 - Egin beharreko jarduketak; atal honetan, zehatz-mehatz azalduko da jarduketa bakoitza, eta adieraziko da zein epetan egingo den eta nor arduratuko den egiteaz.
 - Proiektuan parte hartzen duten pertsonen zerrenda.
 - Era berean, jarduera bakoitzeko aurrez ikusitako pertsonalgastuak, aurrez ikusitako sarrerekin batera.

b) Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak.

c) Behargintzaren jardun-eremua diren udalerrietan proposatutako proiektuaren lan- eta gizarte-eraginaren azterketa.

2. Behargintza zentro bakoitzak hartzen dituen udalerrieta biztanleak, guztira. Irizpide hau kalkulatzeko, kontuan hartuko da 2016ko urtarrilaren 1ean Bizkaiko udalerrietan zeuden biztanleen kopurua.

- 30.000 pertsonaraino: puntu 1.
- 30.000 pertsonatik 60.000 pertsonara: 2 puntu.
- 60.000 pertsona baino gehiago: 3 puntu.

3. Behargintza zentroak hartzen dituen udalerrien kopurua:
- Udalerri 1: puntu 1.
 - 2-5 udalerri: 2 puntu.
 - 5 udalerri baino gehiago: 3 puntu.

4. Behargintza zentroaren jardun-eremuan erregistratutako langabezia-tasa. Irizpide horren kalkulua egiteko, kontuan hartuko da udalerrriak 2016ko abenduan erregistratutako langabezia-tasa (iturria: Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua).

- %10eko langabezia-tasa edo txikiagoa: 0 puntu.
- %10etik %13ra arteko langabezia-tasa: puntu 1.
- %13tik %16a arteko langabezia-tasa: 2 puntu.

— %16ko langabezia-tasa edo handiagoa: 3 puntu.

Berdinketa gertatzen bada, ordena lehenetsun-irizpide hauen arabera erabakiko da:

1. Artikulu honetako 4. irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

2. Artikulu honetako 3. irizpidean puntuaziorik handiena lortu dutenak.

3. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko sarrera-erregistroan eskabideak izan duen hurrenkera.

Artículo 6.—Procedimiento de concesión y criterios de valoración

La selección de las solicitudes se realizará conforme con el régimen de concurrencia competitiva. A estos efectos tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento por el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo a los criterios de valoración que se señalan en este artículo, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de estos criterios.

No obstante se aplicará el prorrateo, entre las entidades beneficiarias de la subvención, del crédito disponible.

Para la valoración de las solicitudes presentadas y determinación de la cuantía de la subvención se tendrán en cuenta los siguientes criterios a valorar:

1. El grado de definición, calidad, contenido, presentación y coherencia del proyecto presentado con los objetivos, líneas y acciones de la entidad solicitante. Puntuación máxima 2 puntos.

Para la valoración de este criterio la entidad solicitante presentará un informe que deberá contener al menos los siguientes apartados:

- a) Memoria del proyecto, en la que se detallen:
 - Los objetivos perseguidos.
 - Las actuaciones a realizar, en este apartado se deberá detallar profusamente cada una de las actuaciones, con indicación de plazos de ejecución, y personas encargadas de su ejecución.
 - La relación de las personas participantes en el proyecto.
 - Así como el detalle de los gastos de personal previstos por cada una de las actuaciones, junto con los ingresos previstos.
- b) Razones por las que se justifica la idoneidad de la acción propuesta.

c) Análisis del Impacto sociolaboral del proyecto propuesto en los municipios ámbito de actuación del Behargintza.

2. Población total de los municipios afectados por cada centro Behargintza. Para el cálculo de este criterio se tendrá en cuenta la población municipal de Bizkaia a 1 de enero de 2016.

- Hasta 30.000 personas: 1 punto.
- Más de 30.000 personas y hasta 60.000: 2 puntos.
- Más de 60.000 personas: 3 puntos.

3. Número de municipios que abarque el centro Behargintza:
- 1 municipio: 1 punto.
 - De 2 a 5 municipios: 2 puntos.
 - Más de 5 municipios: 3 puntos.

4. Índice de paro registrado en el ámbito de actuación del centro Behargintza. Para el cálculo de este criterio se tendrá en cuenta el Índice de paro registrado por municipio a diciembre de 2016 (fuente Lanbide, Servicio Vasco de Empleo).

- Índice de paro igual o inferior al 10%: 0 puntos.
- Índice de paro superior al 10% e inferior al 13%: 1 punto.
- Índice de paro igual o superior al 13% e inferior al 16%: 2 puntos.
- Índice de paro igual o superior al 16% 3 puntos.

En caso de empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios de prioridad:

1. Quienes hayan obtenido mayor puntuación en el criterio 4 de este artículo.

2. Quienes hayan obtenido mayor puntuación en el criterio 3 de este artículo.

3. Orden prioritario de registro de entrada de la solicitud en la Diputación Foral de Bizkaia.

7. artikulua.—Diru-laguntza ordaintzea

Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

1. Diru-laguntza ematen den unean, gehienez diru-laguntza-ren %50 ordainduko da.

2. Geratzen den ehunekoa, 2017ko urrian, dekretu honen 8. artikuluan zehazten diren justifikazio-agiriak 2017ko irailean aurkeztu ondoren.

Justifikazioari buruzko agiriak 8. artikuluan zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, Dekretu honen 21. artikuluan xedatutako prozedura irekiko da.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere bete dituztela egiaztatuko da. Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, orduan foru dekretu honen 21. eta 22. artikuluetan ez-betetzearako ezarri den prozedura hasiko da, eta ohartaraziko zaio eman zitzaion laguntza zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta emaniko kopurua doitu egun beharko zaiola.

8. artikulua.—Justifikatzeko era

Diru-laguntza justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean, behean adierazten diren epeetan:

2017ko irailean, proiektuaren gauzatzeari buruzko bitarteko txosten bat aurkeztuko da, 2017ko ekainaren 30ean zein egoeratan dagoen azaltzen duena; txostenean, alderdi hauek jasoko dira:

— Proiektuan jasotako ekintzen azalpen-memoria, non zehaztuko diren ekintza bakoitzaren edukia eta gauzatze-maila.

Ekintza horietako bakoitzerako, parte-hartzaileei buruzko datuak aurkeztuko dira; datuok sexuaren, adinaren (30 urtera arte, 31-45 urte bitartean eta 45 urtetik gora) eta gizarte eta laneko egoeraren (langabezia edo enplegu hobea baten bila) arabera bereiziko dira.

— Justifikazio-memoria ekonomikoa, hauek jasoko dituena:

- Proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria, 2017ko lehen seihilekoari dagokiona.
- Diruz lagundu den jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.
- Sarreraren egoera-orriaren zerrenda zehatza: diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak eta baliabideak, finantzaketa propioa barne; adieraziko da zenbatekoak diren eta nondik datozen.

2018ko otsailaren 28a baino lehenago, justifikazio-kontua aurkeztu beharko da, gastuen frogagirikin batera; diru-laguntzei buruzko foru araudiaren 57. artikuluan arautzen da justifikazio-kontu hori (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudia). Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean erregistroan aurkeztuko da justifikazio-kontua; horretarako, dokumentazio hau beharrezkoa izango da:

— Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduera-memoria, proiektuan jasotako jardueretako bakoitza azaltzen duena; ekintza bakoitzean alderdi hauek adieraziko dira: ekintzak, garapena eta gauzatzea, helburuen betetze maila eta eskualdean duen eragin sozioekonomikoa.

Ekintza horietako bakoitzerako, parte-hartzaileei buruzko datuak aurkeztuko dira; datuok sexuaren, adinaren eta gizarte eta laneko egoeraren arabera bereiziko dira.

Artículo 7.—Pago de la subvención

La ayuda otorgada se abonará en los siguientes plazos:

1. En el momento de concesión de la ayuda, se abonará hasta un máximo del 50% de la subvención otorgada.

2. El % restante, en el mes de octubre de 2017 tras la presentación en el mes de septiembre de 2017 de la documentación justificativa que detalla el artículo 8 de este Decreto.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentara en los plazos previstos en artículo 8 se iniciará el procedimiento previsto en el artículo 21 del presente Decreto.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en los artículos 21 y 22 del Decreto con el apercibimiento de que perderá el derecho al cobro del importe de la ayuda otorgada de que se trate y con el resultado de reajuste de la cantidad otorgada.

Artículo 8.—Forma de justificación

La subvención otorgada se justificará mediante la presentación en el registro del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la documentación y en los plazos que se relacionan a continuación:

En el mes de septiembre de 2017, deberá presentar un informe intermedio de ejecución del proyecto a 30 de junio de 2017 que contenga:

— Memoria descriptiva de las acciones contempladas en el proyecto, detallando el contenido de cada una de las acciones y el grado de ejecución.

Por cada una de las acciones se aportarán los datos de las personas participantes desagregados por sexo, edad (hasta 30 años, de 31 a 45 años y mayor de 45 años) situación sociolaboral (en desempleo o en mejora de empleo).

— Memoria económica justificativa que contendrá:

- Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto correspondiente al primer semestre de 2017.
- Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada.
- Una relación detallada del estado de ingresos indicando las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

Con anterioridad al 28 de febrero de 2018, deberá presentar la cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, regulada en el artículo 57 del Reglamento Foral de subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo que se presentará en el registro del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad por lo que se requiere la presentación de la siguiente documentación:

— Memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con descripción detallada de cada una de las acciones contempladas en el proyecto indicando el contenido de cada una de las acciones, desarrollo y ejecución, cumplimiento de objetivos y su impacto socio económico en la comarca.

Por cada una de las acciones se aportarán los datos de las personas participantes desagregados por sexo, edad y situación sociolaboral.

- 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte eginiko jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, alderdi hauek jasotzen dituena:
 - Diruz lagundutako jarduerari egotzitako gastu eta sarre-
ren egoera-orria.
 - Diruz lagundu den jardueraren gastuen zerrenda sailka-
tua.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sai-
lak ezarritako ereduaren arabera aurkeztuko da justifikazioa (Sai-
laren web orrialdean egongo da eredu), excel fitxategi-formatuan;
karpeta bakar batean sartuko da, eta euskarri informatikoan aur-
keztuko da.

- Diruz lagundutako ekintzan parte hartzen duten langileei buruzko ziurtagiria, non adierazten den proiektuan zenbat ordutan jarduten duten, zenbateko kostua dakarren ordu bakoitzak eta zer irizpide erabili dituzten horretarako.
- Diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten langile-
en nominak eta TC2ak, ekintzan jardun duen hilei dagoz-
kienak. Enplegu eta tokiko garapenerako zentroek ez
badute dagozkien toki-erakundeetatik eta organismo auto-
nomoetatik bereizitako nortasun juridiko propioak, nominak
eta TC2ak aurkeztu barik udaleko kontu-hartzaileak eman-
dako ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango da, non egiaztatu-
ko den ezarritako epean oro har zer ordainketa egin dituen
udal korporazioak. Ziurtagiri horretan, proiektuan parte har-
tzen duten langileen kostuak banakatuko dira.
- Sarreraren egoera-orriaren zerrenda zehatza: diruz lagundu-
tako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntzak, lagun-
tzak, sarrerak eta baliabideak, finantzaketa propioa barne;
adieraziko da zenbatekoak diren eta nondik datozen.
- Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen itzulketaren
ordainketa-gutuna.

9. artikulua.—Diruz lagundu daitekeen ekintza egiteko epea

Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2017ko urtarrilaren 1etik
2017ko abenduaren 31 bitartean egin beharko dira.

10. artikulua.—Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea

Laguntza hauei heldu nahi dietenek eskabide egokia aurkez-
tu beharko dute, oso-osorik behar bezala beteta, eta foru dekretu
honen 11. artikuluan zehaztutako agiri guztiak erantsita, nahitaez
Interneten bidez Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sus-
tatzeko Sailaren bulego birtuala erabilita, urriaren 1eko 39/2015 Lege-
aren 16. artikulurekin bat etorrita.

Bulego birtuala erabiltzeko, sistemak sinadura elektronikoa edo
BizkaiBai txartela eskatuko dizu. Hura eskatzeko: Laguntza-
Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bulegoan (Diputazio kalea,
7, beheko solairua, Foru Liburutegiaren kristalezko eraikina, Aldun-
diko Jauregiaren atzealdean, 48008 Bilbo Sarrera: Metroko Moyua
geralekua, Diputazio kaleko irteera) edo Durangoko Hiritarrentza-
ko Arretako eskualdeko Bulegoan (Askatasuna etorbidea, 12, 48200-
Durango).

Eskabide-orrira jo aurretik, sistemak Enplegua, Gizarte Inku-
sioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Erakundearen Erregistro-
an inskripzioa egiteko beharrezkoak diren datuak eskatuko dizki-
zu. Inskripzio hori diru-laguntza eskatu aurretik egin behar da eta
nahitaezkoa da.

Erregistro horren barruko datuetan edo eskabidean egiaztat-
utakoetan aldaketaren bat eginez gero Enplegua, Gizarte Inku-
sioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari jakinarazi behar zaio, haren
bulego birtualaren bidez.

Aurrekoarekin bat etorrita, eskabideak aurkezteko bide tele-
matikoa erabili behar denez, interesdunek, aldeztu aurretik, sinadu-
ra elektronikoa izan behar dute, edo BizkaiBai zerbitzuan izena eman.
Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian aur-
kitu daiteke alta emateko prozedurari buruzko informazioa.

- Una memoria económica justificativa del coste de las acti-
vidades realizadas desde el 1 de enero hasta el 31 de diciem-
bre de 2017, que contendrá:
 - Un estado de gastos e ingresos imputados a la actividad
subvencionada.
 - Una relación clasificada de los gastos de la actividad sub-
vencionada.

Esta justificación se presentará según modelo establecido por
el Departamento de empleo Inclusión Social e Igualdad y que se
publicará en la web del citado Departamento, en formato archivo
excel, debiendo estar en una única carpeta y ser entregado en sopor-
te informático.

- Certificado del personal que participa en la acción subven-
cionada, con desglose de horas y coste horario, explican-
do además los criterios que se han seguido para la impu-
tación de los mismos.
- Las nóminas y TC2 de las personas participantes en las acti-
vidad subvencionada correspondientes a los meses en que
se hubiere desarrollado la acción. En el supuesto de Cen-
tros de Empleo y Desarrollo Local sin personalidad jurídi-
ca propia y diferenciada de la/s entidad/es local/es de la/s
que dependen y organismos autónomos la presentación de
las nóminas y TC2 se podrá sustituir por la presentación
de Certificado expedido por el/la interventor/a municipal acre-
ditativo de los desembolsos realizados por la corporación
municipal con carácter general en el período establecido,
en el que se detallen desglosados los costes de las perso-
nas participantes en el proyecto.
- Una relación detallada del estado de ingresos indicando las
subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la finan-
ciación propia que hayan financiado la actividad subven-
cionada, con indicación del importe y su procedencia.
- En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto
de remanentes no aplicados.

Artículo 9.—Período de ejecución subvencionable

Las acciones objeto de subvención deberán ejecutarse en el
período comprendido entre el 1 de enero de 2017 y el 31 de diciem-
bre de 2017.

Artículo 10.—Forma, lugar y plazo de presentación de solici- tudes

Quienes deseen acogerse a estas ayudas, deberán presen-
tar la correspondiente solicitud debidamente cumplimentada en todos
sus términos y la documentación anexa detallada en el artículo 11
del presente Decreto Foral, obligatoriamente por internet a través
de la Oficina Virtual del Departamento de Empleo, Inclusión Social
e Igualdad, conforme el artículo 16 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.

Para utilizar la oficina virtual el sistema le requerirá firma elec-
trónica, o tarjeta BizkaiBai, que podrá obtenerla en la Oficina de
Registro y Atención Ciudadana (Diputación, 7, planta baja, Edifi-
cio de cristal de la Biblioteca Foral, trasera del Palacio de la Dipu-
tación, 48008-Bilbao. Acceso Metro Moyua, salida Diputación) o en
la Oficina comarcal de atención ciudadana de Durango (Askata-
suna Etorbidea, 12. 48008-Bilbao).

Antes de acceder al formulario de solicitud, el sistema le soli-
citará los datos necesarios para la inscripción en el Registro de Enti-
dades del Departamento de empleo, Inclusión Social e Igualdad.
Dicha inscripción es previa y obligatoria a la solicitud de la
subvención.

Cualquier modificación de los datos incluidos en dicho regis-
tro o acreditados mediante la solicitud deberá ser comunicada al
Departamento de Empleo Inclusión Social e Igualdad mediante su
Oficina Virtual.

De acuerdo con lo anterior, la presentación telemática de las
solicitudes exigirá que, con carácter previo, las personas interesa-
das dispongan de firma electrónica, o se den de alta en el servi-
cio BizkaiBai. La Información sobre el procedimiento de alta está
disponible en la página web del Departamento de Empleo, Inclu-
sión Social e Igualdad.

Eskabideak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 1ean hasiko da, 8:00etan, eta 2017ko martxoaren 15ean bukatuko da, 13:30ean.

Eskabideak aurkeztuz, eskatzaileak baimena ematen dio diru-laguntza ematen duen organoari zuzenean lor ditzan foru dekretu honen 15. artikuluko azken atalean ageri diren inguruabarren egiaztagiriak. Horretarako, dagozkion ziurtagiri telematikoak baliatu ahal izango dira, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudiaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

11. artikulua.—*Nahitaezko dokumentazioa*

1. Laguntzei heldu nahi dietenek eskabidea aurkeztu behar dute, diru-laguntza eskatzen duen entitatearen ordezkariak behar bezala beteta, nahitaezko agiri hauekin batera:

- Hartzekodun-fitxa: Fitxan adierazitako kontu-zenbakiak eskabide orrian jarritako bera izan behar du.
- Plantillaren ziurtagiria, udaleko kontu-hartzaileak emana, baldin Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroek ez badute dagozkien toki-erakundeetatik bereizitako nortasun juridiko propioirik, edo erakundearen ordezkariak duen pertsonak emana, baldin eta merkataritzako enpresa edo irabazteko asmorik gabeko elkarte gisa eratuak enplegu eta tokiko garapenerako zentroak badira. Ziurtagirian, Behargintza zentroari atxikitako pertsonen zerrenda, lanpostua eta kontratu-mota adierazi behar dira.
- Txostena, gutxienez ere alderdi hauek jasotzen dituena:
 - a) Proiektuaren memoria, alderdi hauek zehazten dituena:
 - Lortu nahi diren helburuak.
 - Egin beharreko jarduketak; atal honetan, zehatz-mehatz azalduko da jarduketa bakoitza, eta adieraziko da zein epetan egingo den eta nor arduratuko den egiteaz.
 - Proiektuan parte hartuko duten pertsonen zerrenda; adieraziko da pertsona bakoitzak zenbat ordu eman dituen eta orduko zenbateko kostua dakarren.
 - Era berean, jarduketa bakoitzeko aurrez ikusitako pertsonal-gastuak, aurrez ikusitako sarrerekin batera.
 - b) Proposatutako ekintzaren egokitasuna justifikatzeko arrazoiak.
 - c) Behargintzaren jardun-eremua diren udalerrietan proposatutako proiektuaren lan- eta gizarte-eraginaren azterketa.

2. Laguntza hauek eman diezazkieten, eskatzaileak nahitaez egiaztatu behar du, laguntzak emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez duela zorrik Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak kudeatzen dituen enbargo ordaingabeak direla eta. Behar bezala betetako eskabidea aurkeztuz, besterik gabe, entitate eskatzaileak baimena emango dio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, beraren izenean bil ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

3. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak nahi dituen agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahalko dizkie entitate eskatzaileei, entitateok aurkeztu duten eskabidea egoki ebaluatu eta ebatzteraren.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará al día 1 de marzo de 2017 a las 8:00 y finalizará el 15 de marzo de 2017 a las 13:30.

La presentación de la solicitud conllevará la autorización del solicitante para que el órgano concedente pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias a las que se refiere el artículo 15 apartado último del Decreto, lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17. del Reglamento de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

Artículo 11.—*Documentación preceptiva*

1. Quienes deseen acogerse a las ayudas, deberán presentar la solicitud, debidamente cumplimentada por la persona representante de la entidad solicitante de la subvención, junto con la siguiente documentación preceptiva:

- Ficha de acreedor: El número de cuenta reflejado en la misma deberá coincidir con la cumplimentada en la solicitud.
- Certificado de plantilla, expedido por el/la interventor/a municipal en el caso de centros de empleo y desarrollo local Behargintza sin personalidad jurídica propia y diferenciada de la/s entidad/es local/es o por la persona que ostente la representación de la entidad en el caso de Centros de Empleo y Desarrollo Local constituidos como empresa mercantil o asociación sin ánimo de lucro. Dicho certificado deberá contener la relación de personas adscritas al centro Behargintza, el puesto de trabajo que ocupan y el tipo de contrato.
- Informe que deberá contener al menos los siguientes apartados:
 - a) Memoria del proyecto, en la que se detallen:
 - Los objetivos perseguidos.
 - Las actuaciones a realizar, en este apartado se deberá detallar profusamente cada una de las actuaciones, con indicación de plazos de ejecución, y personas encargadas de su ejecución.
 - La relación de las personas participantes en el proyecto, con desglose de horas y coste horario.
 - Así como el detalle de los gastos personal previstos por cada una de las actuaciones, junto con los ingresos previstos.
 - b) Razones por las que se justifica la idoneidad de la acción propuesta.
 - c) Análisis del Impacto sociolaboral del proyecto propuesto en los municipios ámbito de actuación del Behargintza.

2. Será requisito necesario para el otorgamiento de las ayudas, acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social y deudas por embargos pendientes que gestione el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia. La solicitud debidamente presentada conlleva la autorización de la entidad solicitante al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad para recabar en su nombre los certificados de estar al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

3. En cualquier caso, el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

II. TITULUA

PROZEDURA

12. artikulua.—*Prozedura hastea eta izapideak egitea*

Diru-laguntzetarako eskabideak ez badaude osorik beteta edo erantsita ez badauzkate beharrezko diren agiri guztiak, edo laguntzaren xedea behar adina zehazten ez bada, enpresa edo pertsona eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio, jakinarazpena jasoz geroko hamar eguneko epearen barruan akatsa zuzen dezan edo 11. artikuluan aipatu diren nahitaezko agiriak aurkez ditzan; hala-ber, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela joko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren arabera (lege hori 4/1999 Legeak aldatu zuen). Horretarako, ebazpen bat eman beharko da aurretik, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako 30/92 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren arabera idatzia.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak izapidetuko ditu eskabideak.

13. artikulua.—*Diru-laguntzen adjudikazioa: baldintzak eta araubidea*

Foru dekretu honetan ezarritako baldintzen arabera emango dira diru-laguntzak eta laguntzak, betiere 6. artikuluan laguntzak emateko ezarritako prozeduraren arabera.

5/2005 Foru Arauaren 20. artikulua ezarritakoari jarraiki, dekretu honen ondorioetarako, honakoa da norgehiagoka deritzon prozedura: diru-laguntzak emateko, aurkezturiko eskabideak erkatu egiten dira; oinarri-arauetan eta deialdian alde zuretik zehaztutako balorazio irizpideen arabera, eskabideen arteko lehentasunak ezarzen dira; eta irizpideok aplikatuz baloraziorik altuena lortu duten eskabideei adjudikatzen zaie laguntza, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz.

Halere, kreditu baliagarriaren hainbanaketa ezarriko da diru-laguntzaren entitate onuradunen artean.

14. artikulua.—*Diru-laguntzak ematea eta errekurtsok jartzea*

Eskabideak ebazpen bakarraren bidez ebartziko dira. Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 23. artikuluekin bat etorrita, ebazpen horretan eskatzaileen zerrenda jasoko da, honako hauek zehaztuta: ematen diren diru-laguntzak, ezesprenak edo eman gabeko diru-laguntzak —atzera egiteagatik, eskabideari uko egiteagatik nahiz geroago sortutako ezintasun materialagatik—.

Onuradun bati diru-laguntza eman dion foru agindua jakinarazita, hamar (10) eguneko epea izango da hura onartzeko, edo ukatzeko, eta epe horretan ez bada beren-beregi ezer adierazten, isiltasunez onartutzat joko da.

Foru dekretu honen babesean aurkeztutako eskabideak ebazteko gehieneko epea bukatuko da, behin deialdi bakoitzaren amaieraren biharamunez geroko 6 hilabeteko epea igarotakoan. Aurkeztutako eskabide guztien beren beregiko ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi, eta beren beregiko ebazpena eman ez badu, eskabidea administrazio isilbidez ezetsi egin duela ulertuko da, ondoren ere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera beren-beregi ebatzi badaiteke ere.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrari, hilabete bateko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzietarako dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazio-

TÍTULO II

PROCEDIMIENTO

Artículo 12.—*Iniciación del Procedimiento y tramitación*

Recibidas las solicitudes de subvención, si éstas no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación necesaria, o no se especificara suficientemente el objeto de la ayuda, se requerirá a la empresa o persona solicitante para que, en el plazo de diez días desde la notificación correspondiente, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos señalados el artículo 11, con indicación de que si así no lo hiciera, se le podrá declarar decaído en su derecho, según lo previsto en el artículo 73 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la citada Ley.

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Artículo 13.—*Adjudicación de subvenciones: condiciones y régimen*

Las subvenciones y ayudas se otorgarán según las condiciones establecidas en el presente Decreto mediante el procedimiento de concesión establecido en el artículo 6.

Se entiende, de conformidad con el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, a los efectos del presente Decreto como concurrencia competitiva, el procedimiento por el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

No obstante se aplicará el prorrateo, entre las entidades beneficiarias de la subvención, del crédito disponible.

Artículo 14.—*Otorgamiento y recursos*

Las solicitudes se resolverán mediante una única resolución, en la que se expresará conforme el artículo 23 de la NFS, la relación de las personas solicitantes detallando los otorgamientos de subvención, así como la desestimación o no concesión, por desistimiento, renuncia al derecho o imposibilidad material sobrevenida.

Notificada la Orden Foral de otorgamiento de la subvención se dispondrá de un plazo de diez días para su aceptación, o renuncia, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del presente Decreto Foral finalizará transcurridos 6 meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes a cada convocatoria. No obstante la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa, conforme los artículos 21 y 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la persona titular del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a aquél en que

arekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran. Ezingo dira errekurtsio biak aldi berean jarri.

15. artikulua.—*Entitate onuradunaren betebeharrak*

Foru dekretu honetan diru-laguntzen onuradunentzat ezartzen diren betebeharez gainera, laguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek bete beharko dituzte Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere. Besteak beste, honako hauek:

- Diru-laguntza ematearen funtsa den jarduera egitea edo hartarako jokabidea hartzea.
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, hala denean, jarduera gauzatu dela edo hori lortzeko asmoz jardun dela frogatzea, baita diru-laguntza ematea edo hartaz gozatzea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere.
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila, hala badagokio, egiten dituen egiaztapen-jarduketan mendean jartzea, bai eta ematen diren diru-laguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jarduketan eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren fiskalizazio-prozeduren mendean jartzea ere.
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila Sailari jakinaraztea helburu bererako diru-laguntzarik edo bestelako laguntzarik jaso bada nazioko edo nazioarteko beste edozein administrazioetatik edo erakunde publikotatik.
Baita eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein aldaketa edo inguruabaren berri ematea ere, baldin eta aldaketa edo inguruabar horrek diru-laguntza jasotzean edo diru-laguntzaren xedea den jardueran edo helburuan funtsezko eragina izan badezake.
- Jarduerak finantzatzeko, diru-laguntzaz gain norberaren funtsak edo beste diru-laguntza zein baliabide batzuk erabili badira, justifikazio-agirian beste funts horien zenbatekoa, jatorria eta funts horien diruz lagundutako jardueri egindako aplikazioa ere egiaztatzea beharko dira.
- Sortuko diren agiri eta euskarrietan ez erabiltzea hizkuntza eta irudi sexistarik.
- Datu pertsonalak eskatzerakoan, datuen babesari buruzko arautegiaren beharizanen arabera jokatzeko.
- Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta arloko legerietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta diru-laguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
- Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea (baita dokumentu elektronikoak ere), ekonomia eta fiskalizazio kontrolleko organoek -Europako Gizarte Funtsekoek barne- egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabili ditzaketan neurrian, arlo horretan aplikagarria den araudiak ezartzen duen epean. Merkataritza Kodearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, liburuetan azken idazpena egin eta 6 urteko epean gorde beharko dira agiriok.
- Eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari haren izenean bide telematikokoaren bidez ziurtagiri batzuk zuzenean lor ditzan, jakiteko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dauzkan.

reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

Artículo 15.—*Obligaciones de la entidad beneficiaria*

Además de las obligaciones previstas en este Decreto Foral para las entidades beneficiarias de las subvenciones, son obligaciones de las entidades beneficiarias de las ayudas, las previstas en los artículos 12, 13, 31.5 y 41 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, siendo entre otras:

- Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
- Justificar ante el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en su caso, la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.
- El sometimiento a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en su caso, y a las de control financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
- Comunicar al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o Entes Públicos nacionales o internacionales.
Así como cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención, en su caso a la ejecución de la actividad o finalidad para la que se concedió.
- Cuando las actividades hayan sido financiadas además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, se habrá de reflejar en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.
- Realizar un uso no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que se produzcan.
- Recabar datos personales en consonancia con las exigencias de la normativa de protección de datos.
- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control por los órganos de control económico y de fiscalización correspondientes, incluidos los del Fondo Social Europeo, durante el plazo al efecto establecido por la normativa aplicable. Documentación que deberá conservarse durante 6 años a partir del último asiento realizado en los libros de conformidad con el artículo 30 del Código de Comercio.
- La presentación de la solicitud conlleva la autorización del solicitante para que el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad obtenga de forma directa la acreditación de forma telemática de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad social.

Egunean ez badago, ezin izango da diru-laguntza ordaindu, beraz ordaintzeko diru-laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko du, eta dekretu honen 22. artikuluan xedatutako ez-betetzeagatiko prozedura hasiko litzateke.

- Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea entitate adjudikaziodunaren sozietate-izenari dagokion edozein aldaketa, bai eta haren forma juridikoari dagokiona edo bazkideen aldaketari dagokiona eta abar ere. Baita eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein aldaketa edo inguruabarren berri ematea ere, baldin eta aldaketa edo inguruabar horrek diru-laguntza jasotzean edo diru-laguntzaren xedea den jardueran edo helburuan funtsezko eragina izan badezake.

16. artikulua.—Programaren jarraipena. Ikuskapena eta kontrola

Entitate onuradunek foru dekretu honen 8. artikuluan ezarritzen diren epeetan bidali beharko dute eskatutako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailera.

Bestalde, laguntza ematean kontuan hartutako baldintzak funtsean aldatzen dituzten gertakari guztien berri eman behar diote Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, eta harekin batera lan egin beharko dute egiaztapen, jarraipen eta kontroleko prozeduretan.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ekimen honek lortu nahi dituen helburuak lortuko direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen eta kontroleko ekintza guztiak egin ahal izango ditu.

17. artikulua.—Emandako diru-laguntzen publizitatea

Foru dekretu honen babesaren pean ematen diren diru-laguntzen publizitateari dagokionez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak foru agindu bat emango du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko zer diru-laguntza ematen diren, eta hor adieraziko da, batetik, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, eta, bestetik, adjudikaziodun gertatu diren entitateen eta bakoitzari emaniko diru-kopuruen zerrenda bat.

Onuradunek behar bezala jakinarazi behar dute dekretu honen babesean diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak finantzaketa publikoa jaso dutela.

Enplegu eta Toki Garapenerako Zentroek, bakoitzak duen izen-dapena alde batera utzita, «Centro de empleo y desarrollo local, Behargintza»/«Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroa» izena erabiliko dute dekretu honen garapenean.

Hain zuzen ere, erakunde adjudikaziodunari eskatzen zaio jardueri buruzko publizitatean txerta ditzala Bizkaiko Foru Aldundia- ren, Behargintzaren eta bere logotipoak.

Era berean, logotipook agertu beharko dute inprimatutako materialetan, baliabide elektroniketan edo ikus-entzunezkoetan, baita komunikabideetan egindako aipamenetan ere.

Aurreko leerroaldeetan aipatu diren zabalkundeko neurriak bete-ko ez balira, onuradunari agindeia egingo litzaioke, ezarritako zabalkundeko neurriak har ditzan 15 eguneko epea amaitu baino lehen, eta ohartaraziko zaio ez-betetze horrek dekretu honen 23. artikuluan xedatutako itzulketarako prozedura hastea ekarriko lukeela.

18. artikulua.—Diru-laguntza beste diru-laguntza batzuekin batera lortzea

Foru dekretu honetan ezartzen diren laguntzekin batera, xede bererako, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribaturen beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso ahal izango dira.

Diru-laguntza guztien zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ezta beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera ere.

Si no estuviera al corriente, no podrá realizarse el pago de la subvención, por lo que perderá el derecho al cobro del importe de subvención a pagar, iniciándose el procedimiento de incumplimiento previsto en artículo 22 del presente Decreto.

- Comunicar al Servicio de Empleo cualquier modificación que afecte a la razón social, a la forma jurídica, o a la variación de las personas socias, etc., de la entidad adjudicataria. Así como cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención, en su caso a la ejecución de la actividad o finalidad para la que se concedió.

Artículo 16.—Seguimiento del Programa. Inspección y control

Las entidades beneficiarias deberán remitir al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad la documentación solicitada en los plazos que se señalan en el artículo 8 de este Decreto.

Por otra parte, quedan obligadas a comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente las condiciones del otorgamiento, así como a colaborar con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en los procedimientos de comprobación, seguimiento y control.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas por esta iniciativa.

Artículo 17.—Publicidad de las subvenciones concedidas

En cuanto a la publicidad de las subvenciones otorgadas al amparo de este Decreto Foral, mediante Orden Foral de la diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, se ordenará la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» del extracto de las subvenciones concedidas, con expresión del programa y crédito presupuestario al que se imputen, así como el listado de las entidades adjudicatarias y cantidades concedidas.

Las personas beneficiarias deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones subvencionadas al amparo de este Decreto.

Los Centros de apoyo al empleo y desarrollo local, independientemente de la denominación por ellos empleada, utilizarán en desarrollo del presente Decreto la denominación «Centro de empleo y desarrollo local, Behargintza»/«Behargintza, Enplegu eta tokiko Garapenerako Zentroa».

En concreto, se requiere que la entidad adjudicataria incluya el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia, el logotipo de Behargintza y el suyo propio, en la publicidad de las acciones.

Asimismo habrá de aparecer, en materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

Si se incumplieran las medidas de difusión previstas en los párrafos precedentes, se requerirá a la persona beneficiaria para que adopte las medidas de difusión establecidas en un plazo no superior a 15 días, con advertencia de que dicho incumplimiento producirá el inicio del procedimiento de reintegro previsto en el artículo 23 de este Decreto.

Artículo 18.—Concurrencia con otras subvenciones

Será compatible la percepción de las ayudas previstas en este Decreto, con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

En ningún caso el importe total de las subvenciones podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Entitate onuradunek nahitaez jakinarazi behar diote diru-laguntza eman dien organoari beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela hark diruz lagundu dituen jarduerak finantzatzeko.

Halako laguntza, sarrera edo baliabideak jaso behar direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Jakinarazteko eginbeharrak ez betetzeak dagokion zehapena ekarriko du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera.

19. artikulua.—Diru-laguntzaren aldaketa

Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzeak diru-laguntzen emakidari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezake, baldin eta diru-laguntzaren helburua eta xedea bete direla uste bada. Halakoetan, dekretu honetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

20. artikulua.—Diru-laguntza gutxitzea

Diruz lagundutako jarduerak egin direla justifikatzeko ezarritako epeak igaro ondoren, jarduera guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla egiaztatuta eta justifikatu ez bada, betiere laguntzen helburua eta xedea bete direla uste bada, diru-laguntzaren zenbatekoa doitzeari ekingo zaio, benetan justifikatutako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun irizpidea erabiliko da, baita diru-laguntza emateko orduan ezarritako irizpideak eta mugak ere.

21. artikulua.—Baldintzak ez betetzea

Honako kasu hauetan, baldintzak ez direla bete ulertuko da: laguntzak jaso dituzten onuradunek dekretu honetan, diru-laguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dutenean, bai eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen diren kasuetan ere.

Ez-betetzea honako hauen arabera mailaka daiteke:

- Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik burutzeak diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du, edo, hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.
- Diru-laguntza kobratu eta gero, egindako gastu guztiak edo zati bat ordaindu gabe edukitzeak diru-laguntza itzuli behar izatea ekarriko du. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketean gastu egotzi guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da diru-laguntzaren itzulketa.
- Diru-laguntza bat eman denean gastu-aurrekontu bat erreferentzia legez hartuta, baina egotzi eta justifikatutako gastua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada.

22. artikulua.—Aldaketen, gutxitzeen eta ez-betetzeen prozedura

Dagokion administrazio-unitateak tramitatuko du prozedura, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Bertintasuna Sustatzeko Sailaren foru diputatuak ebaziko du, eta, hala badagokio, adieraziko du erakunde onuradunek eman zitzaizen eta jaso zuten kopurua guztiz edo partez itzuli behar duten.

Diru-laguntzei buruzko administrazio arau-hausteei zein zehapen-prozedurei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren IV. tituluaren xedatutakoa izango da aginduzkoa.

Horrez gainera, ez-betetzea gertatu dela adierazten duen foru aginduan, zehapen-prozedura abiarazteko agindua eman daiteke, hala badagokio.

23. artikulua.—Itzuli beharreko kredituak

Diru-laguntzei buruzko erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 80. artikuluaaren arabera, diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazten duen erabakian prozedura hori zerk abiarazi duen, zer eginbide bete ez den eta diru-

Será obligación de las entidades beneficiarias comunicar al órgano concedente, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

El incumplimiento de este deber de comunicación dará lugar a la correspondiente sanción de conformidad con la N.F. 5/2005 de 31 de mayo.

Artículo 19.—Modificación de la subvención

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entiendan cumplidos la finalidad y objeto de éstas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, aplicándose los criterios y límites establecidos en este Decreto.

Artículo 20.—Minoración de la subvención

Transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las acciones subvencionadas, sin que se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista, siempre que se entiendan cumplidos la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados, aplicándose el criterio de proporcionalidad así como los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

Artículo 21.—Incumplimiento

Se considerará que existe incumplimiento, cuando las entidades beneficiarias de las ayudas no cumplan las condiciones establecidas en el presente Decreto, o en la resolución de otorgamiento, o las establecidas en la demás normativa de aplicación, así como en los supuestos determinados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Además el incumplimiento se podrá graduar en función de:

- El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.
- La falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, producirá el reintegro de la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.
- Cuando se concede la subvención tomando como referencia un presupuesto de gasto, y sin embargo el gasto imputable justificado es inferior al presupuestado.

Artículo 22.—Procedimiento de modificaciones, minoraciones e incumplimientos

El procedimiento se tramitará por la unidad administrativa correspondiente, y será resuelto por la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, que declarará, en su caso, la obligación de las entidades beneficiarias de reintegrar en todo o en parte la cantidad concedida y percibida.

En cuanto a las infracciones administrativas en materia de subvenciones, así como el procedimiento sancionador ordenará lo dispuesto en el Título IV de la NFS.

Asimismo, la Orden Foral de declaración de incumplimiento, podrá acordar, en su caso, la apertura de procedimiento sancionador.

Artículo 23.—Créditos a reintegrar

De conformidad con el artículo 80 del Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de subvenciones el acuerdo por el que se inicie el procedimiento de reintegro, deberá indicar la causa que determina su inicio, las obligacio-

laguntzaren zer parteri eragiten dion adierazi behar da. Onuradunari erabakiaren berri jakinarazi, eta hamabost eguneko epea eman go zaio egokitzat jotzen dituen agiriak alegatzeko edo aurkezteko.

Diru-laguntza bat osorik edo haren zati bat itzultzen bada (dela aldaketa bategatik, dela gutxitzeagatik edo dela baldintzak ez-betetzearen adierazpen bategatik), diru-laguntza ordaindu zenetik aurrera aplikatu behar diren berandutze-interesak ordaindu behar dira, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.

Horretarako, beharrezkoa izango da aurretiaz jakinarazpena egitea Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unea arte.

Erakunde onuradunak bere borondatez itzuli nahi badu diru-laguntza, ordainketa-gutuna erabili behar du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera.

Gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak dirua biltzeko prozedurari ekingo dio, eta norberaren borondatez ordaintzeko epea hasiko da.

24. artikulua.—Araudi orokorra

Dekretu honetan aipatzen diren diru-laguntzak honako hauek arautuko dituzte: dekretu hau bera, diru-laguntzen deialdia arautzen duen foru agindua eta laguntzak emateko foru aginduak, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak eta hura garatzen duen erregelamendua (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsia) eta Administrazio Zuzenbideko gainontzeko arauak. Halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, interesdunak ematen dituen datuak dena delako prozeduran edo jarduketan aurrez ikusitako xedeetarako soil-soilik erabiliko dira.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, ez beste bati lagako, estatistika- edo ikerketa-ondorioetarako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (BOE, 298. zk., 1999ko abenduaren 14koa) 6.2. eta 11.2. artikuluetan ezarritako kasuetako bat gertatu ezean. 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, datuak lagatzen dituenak noiznahi baliarazi ahal izango ditu datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak, araudiaren arabera ezartzen den eran.

Halaber, interesduneko hogeita hamar eguneko epea izango dute datuen tratamenduari buruzko adostasunean atzera egiteko, tratamenduari buruzko ezetza adierazteko eta, era horretarako adierazpenik egiten ez badute, beren datu pertsonalen tratamendurako baimena ematen dutela ulertuko da (1720/2007 EDren 14.2 artikulua).

Bestetik, fitxategiaren arduraduna eta datuen tratamenduaren barruko edozein fasetan esku-hartzen duen edozein pertsonak datu horien edukiaren gaineko sekretu profesionala gorde behar du.

Dekretu honetan administrazio prozedurari buruz ezarrita ez dagoenerako, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen izango da aplikatzekoa.

nes incumplidas y el importe de la subvención afectado. El acuerdo será notificado a la persona beneficiaria o, concediéndole un plazo de quince días para que alegue o presente los documentos que estime pertinentes.

Todo reintegro, ya sea parcial o total de la subvención, como consecuencia de la modificación, minoración, de la declaración de incumplimiento de la subvención concedida, dará lugar a la obligación de abonar los intereses de demora que resulten de aplicación desde el pago de la subvención conforme a lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral

Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la persona beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

Requerirá una comunicación previa escrita al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Servicio de Empleo.

Quando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la beneficiaria.

La devolución de la subvención a instancia de la propia beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Posteriormente el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia iniciará el procedimiento recaudatorio, abriéndose el periodo de pago voluntario.

Artículo 24.—Normativa General

Las subvenciones a que se refiere el presente Decreto se registrarán por lo dispuesto en el mismo, la Orden Foral que regule su convocatoria y en las Ordenes Forales de otorgamiento, así como por lo establecido en la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y su Reglamento de desarrollo aprobado por Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

De acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de Diciembre, de Protección de Datos de carácter personal los datos aportados por la persona interesada se utilizarán, con carácter único y exclusivo, para los fines previstos en el procedimiento o actuación de que se trate.

No obstante, los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión para fines estadísticos o de investigación con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en los artículos 6.2 y 11.2 de la ley 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal («BOE» número 298, de 14 de diciembre de 1999). En cumplimiento de lo dispuesto en la citada Ley Orgánica 15/1999, la entidad cedente de los datos podrá, en cualquier momento, ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la forma que reglamentariamente se determine.

Asimismo, se dispondrá de un plazo de treinta días por parte de las personas interesadas para revocar el consentimiento al tratamiento de datos para manifestar su negativa al tratamiento, y en caso de no pronunciarse a tal efecto se entenderá que consiente el tratamiento de sus datos de carácter personal. (Artículo 14.2 del RD 1720/2007).

Por otra parte, la persona responsable del fichero y cualquier persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos habrá de guardar secreto profesional sobre su contenido.

En lo no previsto en el presente Decreto en cuanto a procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 10 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Dekretu honetan aurrez ikusitako laguntzak ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera; izan ere, enpresari ez dakartzio mozkinik eta ez diete ekoizpen edo enpresa batzuei mesederik egiten beste batzuen kaltetan. Beraz, salbuesita daude tratatu horren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-prozeduratik.

25. artikulua.—Zehapen-prozedura

Erakunde onuradunak Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren, «Diru-laguntzei buruzko arau-haustete eta zehapen administratiboak», ezarrita dauden arau-haustee-tako bat egiten badu, zigor-espeditentea egin ondoren zigorra ezarriko zaio, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean.ezarritakoaren arabera.

26. artikulua.—Dekretu honen indarraldia

Foru dekretu hau 2017. eta 2018. urteetan egongo da indarrean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.—Arauen garapena

Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren foru diputatuari, dekretu hau osatu edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena.—Aurrekontuko diru-izendapena

Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatzen diren aurrekontuko partiden eta zuzkiduren kontura ordainduko dira. Partida eta zuzkidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

— Partida: 0904/G/241116/43299 2007/0518.

2017. urteko gastua: 400.000,00 euro.

— Partida: 0904/G/241116/44300 2007/0518.

2017. urteko gastua: 277.000 euro.

— Partida: 0904/G/241116/45100 2007/0518.

2017. urteko gastua: 48.000,00 euro.

Diru-laguntza hauetan, 725.000,00 euro eman ahal izango dira, gehienez ere, gutxi gorabehera. Kopuru hori, gehieneko zenbateko-ko doakia, 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera alda daiteke. Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurrezkeria eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako erakunde onuradunak egon daitezkeela, foru dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapen horiek foru dekretu honetan adierazitako partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, foru agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

Bilbon, 2017ko otsailaren 21ean.

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-145)

Las ayudas previstas en el presente Decreto no constituyen ayudas estatales en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no suponen un beneficio para una empresa ni favorecen a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras. Por tanto quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

Artículo 25.—Procedimiento sancionador

La comisión por parte de la entidad beneficiaria de alguna de las infracciones previstas en el Título IV, «Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones», de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, será sancionada, previa incoación del expediente sancionador, conforme a lo dispuesto en Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, Ley 40/2015, del Régimen Jurídico del Sector Público, y según lo establecido en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, del Gobierno Vasco, por la que se regula la potestad sancionadora de las administraciones públicas.

Artículo 26.—Vigencia del presente Decreto

El presente Decreto Foral tendrá vigencia durante los años 2017 y 2018.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Entrada en vigor

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Segunda.—Desarrollo normativo

Se faculta a la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para completar o desarrollar el presente Decreto.

Tercera.—Consignación presupuestaria

Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente Decreto, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

— Partida: 0904/G/241116/43299 2007/0518.

Gasto anual 2017: 400.000,00 euros.

— Partida: 0904/G/241116/44300 2007/0518.

Gasto anual 2017: 277.000 euros.

— Partida 0904/G/241116/45100 2007/0518.

Gasto anual 2017: 48.000,00 euros.

El importe total de las ayudas que se concedan tendrá como límite máximo estimativo la cantidad de 725.000,00 euros, y se podrá modificar conforme a lo previsto en el artículo 41 del Decreto foral 34/2010 en relación a los límites de las cuantías máximas. Asimismo, la distribución entre los créditos presupuestarios tiene carácter estimativo, por lo que en función de las solicitudes presentadas y dada la distinta naturaleza de las posibles personas y entidades beneficiarias, las citadas consignaciones establecidas en este Decreto Foral podrán redistribuirse mediante Orden Foral entre las distintas líneas y partidas señaladas en este Decreto Foral, sin superar el límite global fijado.

En Bilbao, a 21 de febrero de 2017.

La diputada foral de Empleo,
Inclusión Social e Igualdad,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-145)